LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus
NIF: P3115200B



SINATZAILEA
Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2024/05/28

SINATZAILEA
Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRAYOZ ARIZTEGUI
2024/05/28

**ALKATEAREN EBAZPENA**

**Lesakako Udaleko Alkateak ondorengo ebazpena eman du:**

**"ARKITEKTO TEKNIKOAREN LANPOSTUA ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAREKIN BETETZEKO DEIALDIA BETE GABE DEKLARATZEN DUENA.**

**125778R espedientea.**

Alkatearen 92/2024 Ebazpenaren bidez onartu zen deialdia, Lesakako Udaleko arkitekto tekniko eta hirigintzako arduradunaren lanpostua betetzeko, gehienez ere 3 urteko iraupena izanen duen aldi baterako kontratu baten bidez.

Oinarriak argitaratu ziren 2024ko martxoaren 7ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 49. Alean.

Alkatearen 2024ko apirilaren 16ko 213. Ebazpenaren bidez onartu eta baztertuen zerrenda onetsi zen eta oposizioko proba egiteko lekua, eguna eta ordua zehaztu (proba teorikoa: 2024ko maiatzaren 7an, goizeko 9,00etan, Lesakako Udaleko liburutegian (Komentu karrika, 1, Lesaka).
Azterketa teorikoa egin zen eta epamahaiaren aktaren arabera, proba ez du inorek gainditu.

Ondorioz, EBATZI DUT:

1.) Lesakako Udaleko arkitekto tekniko eta hirigintzako arduradunaren lanpostua, aldi baterako, betetzeko (B maila) deialdia bete gabe deklaratzea, inorek ez duelakoz lehen proba gainditu.

2.) Ebazpen hau Lesakako Udalaren web-orrian (www.lesaka.eus) eta iragarki-taulan argitaratzeko agindua ematea.

3.) Ebazpen hau izangaiei eta epaimahaikideei jakinaraztea."